



INIGO AZKONA

SARI BANAKETEA. Iñaki Azkuna alkateak eta Jose Manuel Uribarri Kultura zinegotziak emon zituen sariak.

Aniztasunean, bikain

III. JULIA BERROJALBIZ SARIAK. Deustuko Ikastoleak irabazi dau irakaskuntza aurrerakoia eta euskalduna saritzen dauen garaikurra

Hasier Rekondo | BILBO

Julia Berrojalbiz (Ajangiz, 1923) irakasle euskaldunak lan itzela egin eban Bilboko ikastolen alde. Euskal Eskolaren garapenaren eta instituzionalizazioan alde hartu eban konpromisoak merezitako ordaina euki eban: euskal kulturearen munduko zenbait erakundek (Euskaltzaindia, Sabino Arana Fundazioa, Bizkaiko Guraso eta Ikasleen Alkarteen Federazioa) irakaskuntzearentzako harek emoniko eredu goratu eban, 1998an hil zanean.

Bilboko Udaleko Hezkuntza, Gazteria eta Kirol sailak bere izena daroen saria emoten ditu urtero, hezkuntza aurrerakoia, euskaldunaren eta demokratikoaren baloreak sustatzeko uriburuko ikastetxeen artean. Aurtengo edizinoan, Deustuko Ikastoleak aukeratu tako diziplinearen ganeko egitasmoak lortu dau lehenengo saria.

Ikasle, irakasle eta gurasoen artean berbatutako diziplina

Imanol Ziarsolok kudeatu dau Olagarro izeneko egitasmoa Deustuan. «Alkarregaz bizi izateak dakarzan arazoei aurre egitea eukan erronka nagusia proiektuak», azaltzen dau. Ikastetxe guztietan diziplina arautzeko zigor zerrenda egoten da erakusgai: deustuarrek ikasle,

irakasle eta gurasoen arteko hartu-emonak indartzeko ekimenak ipini ditue martxan. ikastaro osoan zehar. «Zentro bakoitzeko barruko arauak legeztatzen dauen zerrenda hori ez da danon gustukoa izaten; hau dala eta, ez da kontuan hartzen aniztasuna».

Ikastolako hezkuntzea arduradunek bitartekaritza batzordea eratu eban, danon artean konpontzeko diziplina kontuak. «Hartu-emonak sendotzeko sortu dogun gurasoentzako eskoleaz gainera, gatazkak sortzen diran leku arriskutsuenak ikertu doguz, beti, kasuz kasuko ikuspegia erabiliz».

Martxan ipinitako egitasmoak Olagarro dau izena: eskola osoak parte hartzen dau, «erantzun orokorra behar dauen diziplinearen arazoak ekiditeko». Ohituren aldaketari ekin deustie deustuarrek.

Ziarsoloren esanetan, derri gorrezko irakaskuntzea hamasei urtera arte luzatu zanean, diziplina arazoak ugaritu ziran. «Errespetua, diziplina, eraso edo antzeko berben esanahia zehaztu gura izan dogu. Danon

arteko hiztegia konpartitzea be izan dogu helburu».

Beste alde batetik, Gabriel Aresti Institutuaren garapen hezkuntzearen ganeko egitasmoak akzesita lortu eban, atzoko ekitaldian.

Estatuen egoerea, ikasgai

Begoña Zurimendi proiektua-

ren arduradunen esanetan, «ikasgai ezbardinetatik garapen hezkuntzea izan dogu asmo nagusia». Gabriel Arestiko hezitzaileek ikastetxean bertan gauzatutako priktua gara-

tu dabe. «Ikasgai guztiak bareratu doguz: estatuen egoerea landu dogu, ikasturte guztian zehar».

Beste akzesit bat lortu dauen Mugika Solokoetxe ikastetxeak herri eta kultura ezbardinen arteko alkarbizitza landu dau. «Ikastetxean daukaguzan kultura ezbardinak errespetu eta onartu daitezcan bultzatu dogu», dino, Blanca Arana zuzendaria. Ikastetxean emoten diran egoera guztietan jorrazten ditue baloreok: Solokoetxeko ikasleek ordubete eskaintzen deustie, astero, baloreok sustatzeko bitartekaritza lanari.

GURASOEN ESKOLEA

Deustuko Ikastolakoek gurasoen eskolea sortu dabe, hartu-emonak sendotzeko, Olagarro izeneko proiektuan

LABURAEAN

BARAKALDO

Nafarroa eta Bizkaia kaleak itxiko ditue, Foruak eta Arrandi tartean 85,5 milioi pezetako lanak egiteko

EGUNKARIA
Carlos Pera, alkatea.

Udal gobernuak Nafarroa eta Bizkaia kaleak itxiko ditu trafikoarentzat, gaurtik aurrera, Foruak eta Arrandi tartean egingo dituen lanak dirala eta. 84,5 milioi pezetako kostua eukiko dabe lanok, Carlos Pera alkateak adierazotakoaren arabera. Orain dala hiru hilabete esan eban Perak berak Barakaldoko uribarruan egin dituen lanak «amaitzeko egozala». Udal gobernuak 3.845 milioi pezeta inbertidu ditu, uri barrutiaren bermoldaketean. Diego

Moyano Urigintza zinegotziaren esanetan, «PERCO egitasmoan dagozan lanok lurpeko hodian eta bidearen barriztapenak eragingo ditue».

BARAKALDO

Udalak Landaburuko aparkalekuko gastuak ordaindu beharko ditu

EAEko Auzitegi Nagusiak Barakaldoko udala zigortu dau, Landaburuko aparkalekuko gastuak beregain hartzera. Aparkalekuak erakusten dituan obraren akatsak ordaindu beharko ditu udalak: 53 milioi pezeta, osotara. Holan, 807 aparkalekuen jabeek ez dabe, epaiaren arabera, barriztapenen kargua hartu beharko.

SESTAO

10 milioi pezeta inbertiduko ditue, AISS aretoa barrizteko

Sestaoko Udalak 10 milioi pezeta inbertiduko ditu, AISS aretoa barrizteko. Egitasmoak aretoaren eskenografia eta antzerki emondien hobekuntza eragingo dau, Alexia Castelo urigintzako zinegotziaren berbetan. Castelok ganeratu eban, argiztapenaren, soinuaren eta pantailearen mekanizazio gauzatuko dau proiektuak.

SESTAO

EB/IUk Urbinagako kontrolbako zaborteia kentzeko eskatu deutso udal gobernuari

EB/IUko udal taldeak RENFEko geltoriaren alboan dagoan Urbinagako zaborteia kentzeko eskatu deutso udal gobernuari. Felix Gonzalo EBko zinegotziak azpimarratu eban, «zaborteia hondatutako ingurunean dago, ganera, isurketa etengabeak egiten ditue bertan». Aitatutako zaborteia hutsik dagozan bi eraikuntzen alboan dago. «Botaten ez badira, bertatik igaroten diran ibiltarientzako arriskua gehituko litzateke», ganeratu eban, Madrazoren alderdikideak.

BILBO

Ura kenduko dabe, gaur, uriko bost kaletan

Ur sarean egin beharreko zenbait aldaketa dirala eta, uriburuko udaleko teknikariek ura kenduko dabe Julian Gayarre Etorbidean eta Ondarroa, Zirko Amateur Club Deportivo, Artalandio eta Fernando Jimenez 'DYA' kaleetan. Goizeko 07:30etatik eguerdiko 13:00etara arte luzatuko dabe, aitatutako uraren kenketea.

BASAURI

Antzerkia eta umorea, Social Antzokian

Basauriko Social Antzokiak antzerki eta umore jardunaldiak antolatatu ditu, datorren hilerako. LVC antzerki taldeak zabalduko ditu jardunaldiok, bagilearen 1ean, *Ojalemos que aplausan* lanagaz. Hilaren 2an, Yllana Teatro taldeak kontzertu emonaldia eskainiko dau, egunkariak, edo arropa eskegiteko tresnak erabiliz.